



BMF- ko ZUZENDARITZA BATZORDERAKO HAUTESKUNDEAK – 2023

Gaur, 2023ko otsailaren 1ean, 19:00etan, Hauteskunde Batzordearen bigarren bilera egin da Bilboko Kirol Etxean, BMF-FVM-2023ko hauteskondeekin lotuta.

BERTARATUAK:

Roberto Jubeto González NAN 30555529-Y zenbakia duena, Sociedad Montañera Encartaciones elkartearen izenean.

Aitor Arnedo González, NAN 30627199-P zenbakia duena, Ganguren Mendi Taldearen izenean.

LANDUTAKO GAIAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK:

Bizkaiko Mendizale Federazioko Zuzendaritza Batzorderako eta Lehendakaritzarako hautagaitzak aurkezteko hauteskunde-egutegian ezarritako epea amaitu ondoren, ezarritako epearen barruan honako osaera hau izango duen hautagaitza bakarra aurkeztu dela egiaztatzen da:

Presidentea	Jose Félix Fernández de Ponga
Presidenteordea	Victor Manuel Vivar Moreno
Diruzaina	Alberto Nieto Ibarrechebea
Idazkaria	Karmelo Ruiz de Alegria Martin
Batzordekidea	Ana Sesumaga Gonzalez
Batzordekidea	Igor Lopez González
Batzordekidea	Javier Fernandez Arispe
Batzordekidea	Garbiñe Okerantza Zulueta
Batzordekidea	Arrate Bastida Diaz de Otazu
Batzordekidea	Gabriel de Regil Amorena
Batzordekidea	Sergio Valentin Lopez Sanz
Batzordekidea	Izaskun Ugarte Ayesta
Batzordekidea	Soledad Santisteban Villanueva

Hauteskunde Batzordeko kideek egiaztatu eta ziurtatu dute hautagai-zerrenda horretako partaide guztiek betetzen dituztela Hauteskunde Araudiaren 25. eta 26. artikuluetan, Federazioaren Estatutuen 37. artikuluan, Kirol Federazioetarako Hauteskondeei buruzko 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 60. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Federazioen 16/2006 Dekretuaren 90. artikuluan eskatzen diren baldintzak.

Aurrekoarekin bat etorritz, Hauteskunde Batzordeak, Hauteskunde Egutegian ezarritako epe ofizialaren barruan, aurkeztutako hautagai-zerrenda bakarra behin-behinean onartu eta aldarrikatzea erabaki du, eta erabaki hori titularrari jakinaraziko zaio ofizialki.



Bizkaiko Mendizale Federazioa
Federación Vizcaína de Montaña

Era berean, aldarrikatutako hautagai-zerrendaren titularrari Euskadiko Kirol Federazioen 16/2006 Dekretuaren 116. artikulua edukiaren berri ematea erabaki da, behin betiko izendatuz gero izan ditzaketen bateraezintasunei dagokienez. Hemendik aurrera, eta hauteskunde-egutegiaren arabera, bi egun balioduneko epea irekiko da (otsailaren 2a eta 3a) behin-behinean aldarrikatutako hautagaitzaren datuetan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko.

Bilbon, 2023ko otsailaren 1ean

Hauteskunde Batzordea

Presidentea

Idazkaria

Batzordekidea